

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako ekonomiaren hazkundera % 3,1 arte bizkortu da azkeneko urtean

Ayerdi lehendakariordeak "pozgarritzat" jo ditu suspertze ekonomiaren zantzuak, eta uste du minimizatu egiten dituztela epe laburrean jarduerak "bat-bateko" erorialdia izateko arriskuak

Ostirala, 2017.eko apirilak 28

Manu Ayerdi Garapen Ekonomikoko lehendakariordeak gaur goizean [iragarri du](#) Nafarroako ekonomiaren hazkundera bizkortu egin dela aurtengo lehenengo hiru hilabeteetan; % 0,9ko hazkundera izan du aurreko hiruhilekoarekiko, eta horrek % 3,1 arte igo du Nafarroako ekonomiaren hazkundera azkeneko urtean, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gehiago.

Estatu mailan, % 0,8koa izan da Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundera 2017ko lehenengo hiruhilekoan; urte arteko datua, berriz, % 3koa. Kasu bietan, Nafarroako ekonomiak erregistratutako jarduera baino puntu bat gutxiagokoa.

Ayerdi lehendakariordeak uste du gaur goizean aurkeztutako datu ekonomikoek baieztatu egiten dutela "koiunturazko beste adierazle batzuk erakusten ari zirena", hala nola Gizarte Segurantzako afiliazioek eta Biztanleria Aktiboaren Inkestak –atzo, osteguna, ezagutu genuen–, "urtarrila eta martxoa bitartean eskualdeko jarduerak izan duen indarrari" dagokionez.

Industrian, eraikuntzan eta nekazaritzako jardueretan oinarritu da 2017ko lehenengo hiruhilekoan Nafarroako ekonomiak izan duen hazkunde hori; "hiru sektore horiek hartu dute zerbitzuen lekukoa, sektore hori izan baita orain arte BPGren hazkundearen lidergoa izan duena, eta urteko lehenengo hilabete hauetan moteldu egin du bere urte arteko erritmoa", adierazi du Manu Ayerdik. Bestalde, zehaztu duenez, manufakturen barruan, urteko lehenengo hilabeteetan enplegu gehien batu duten adarrak izan dira nekazaritzako elikaduraren industria eta metalezko produktuen fabrikazioa, eta "hazkunde interesgarria" izan dute industria kimikoak eta farmazia-industriak ere.

Suspertze-zantzu "pozgarriak" eta goranzko berrikuspena

Bere mintzaldian, Ayerdi lehendakariordeak adierazi du "oso pozgarriak" direla "suspertze ekonomikoaren martxaren zantzuak". Aldi berean, onartu du hobekuntza hori zabala eta orokorra izanik, eta zer jardueretan gertatzen ari den kontuan hartuta, esan daiteke zantzu horiek "minimizatu" egiten dituztela "jarduera ekonomikoak epe laburrean bat-bateko erorialdia izateko aukerak".

Suspertze ekonomikoaren sostengu diren akuiluei buruz ere hitz

egin du Manu Ayerdik. Horrela, krisiaren eztagaren aurretik gertatzen zenaren kontra –orduan eraikuntzak elikatu zuen hazkunde ekonomikoa eta zor pribatuaren metatze handia sortu zuen–, "orain, manufakturak eta zerbitzuak dira hedapenaren sostengu, eta horrek hazkundera osasuntsuagoa eta iraunkorragoa izango dela iragartzen du".

Zentzu horretan, lehendakariordeak jakinarazi du, beste erakundeek bezala, Espainiako hazkunderaren 2017rako goranzko berrikuspena egin dutela, eta espero dela gaur, ostirala, Ministroen Kontseiluak aurtengo BPGren hazkunderaren aurreikuspena % 2,5etik % 2,7ra igotzea Estatu osorako. "Goranzko berrikuspen horiek iaz gertatutakoa ekartzen dute gogora; iaz, azkenean, ekitaldia espero zena baino hobea izan zen, eta baikorrak izateko arrazoiak ematen dituzte", adierazi du Ayerdik; eta aurreratu du "oso litekeena" dela "Nafarroako Gobernuak ere ekitaldi honetarako planteatutako eszenatoki makroekonomikoaren goranzko berrikuspena egitea datozen asteetan".

Hala ere, Garapen Ekonomikoko lehendakariordeak argitu du oraindik "mugarri garrantzitsuak" ditugula "gure aurrean nazioarte mailan", hala nola Trump presidente estatubatuarren politikak eta Frantzia eta Alemaniako hauteskundeetako emaitzak, eta adierazi du "emaitza horiek merkataritza-fluxuetan berehalako eragina" izan lezaketela, "eta jarduera hoztu". Gainera, Manu Ayerdik urte honetarako, Polo modeloaren bertsio berrirako eta bigarren modelorako egokitzapena dela eta, Volkswagen Navarra lantegian aurreikusten den ekoizpen-jaitziera aipatu du; eta "horrek eragina izan dezake BPGean, beste batzuetan gertatu izan den bezala".